

## BALIOA

Guk eskainiko duguna zerbitzu seguru bat da, horrela jendea ez da hainbeste kezkatu behar edaten dutena kutsatuta dagoen ala ez.

Gure produktuaren balorea kualitatiboa da, prezioaz eta abiaduraz aparte, bezeroek zerbitzuarengan eta produktuarengan duten pertzepzioa delako gehien balio duena. Gure produktua lehiakideez desberdintzen gaituena honako irizpide hauek dira:

- Prestazioak: Zerbitzuaren erabilera hobetuko dugu, hau da, atzerriko herrialde bateko asmakuntza gure herrialdera inportatuko dugu gizarteko arazoa asetzeko.
- Pertsonalizazioa: Beste ezaugarri bat da bezero konkretuen beharretara egokituko gara, bortxaketak ekiditeko eta festetara joaterako orduan, gurasoak lasaiago egoteko.
- Lana erraztea: Eskaintzen dugun beste abantaila bat bezeroari zenbait lan egiteko erraztasuna ematea da, esaterako, azazkala edarian sartzerakoan erraz ikusi ahal izango da drogarik daukan ala ez, medikuarenera joan ordez.
- Eskuragarritasuna: Gure enpresa geografikoki hurbilago kokatuko dugu eta gainera gure bezeroek gure produktua kontsumitzeko ez dute bidalketa-gasturik ordaindu behar.

